

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZAMBRANAKO UDALA

Behin betiko onespena ematea garbiketako langilearen plaza amortizatzeari eta lanpostuen zerrenda aldatzeari

Garbiketako langilearen plaza amortizatzeko eta horren ondorioz lanpostuen zerrenda aldatzeko espedientea jendaurrean jarrita egon da hamabost egunez, dagokion iragarkia ALHAOn argitaratu eta gero; iragarkiaren kontrako erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onetsizat ematen da espedientea, eta, beraz, lanpostuen zerrenda berria argitara ematen da:

Lanpostu zerrenda

Karrerako funtzionarioak:

1.1 Gaikuntza nazionalekoak.

Lanpostuaren izena: idazkari-kontuhartzailea. Plaza kopurua: 1. Taldea: A1/A2. Tituluak: Gaikuntza nazionala duten toki administrazio funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 52.4 artikuluan xedatutakoa. Hizkuntza eskakizuna: 4; derrigortasun data: 2020ko otsailaren 6a. Lantokia: udaletxea; administrazio egoera: beteta; lanaldia: osoa; destino osagarriaren maila: 26; betetzeko era: lehiaketa; berriazko osagarria: 22.874,08 euro.

1.2 Administrazio orokorrekoak.

Eskala: administrariak; azpieskala: laguntzaileak; plaza kopurua:1; taldea: D; titulazioa: Eskola Gradua, 1. mailako Lanbide Heziketa edo baliokidea; hizkuntza eskakizuna: 2; derrigortasun data: 2005eko urtarrila; lantokia: udaletxea; administrazio egoera: beteta; lanaldia: osoa; destino osagarriaren maila: 18; betetzeko era: lehiaketa; berriazko osagarria: 13.395,54 euro, gehi 2.863,00 euro diruzaintzako zereginengatik.

Lanpostuen zerrenda behin betiko onartzen duen erabaki honen aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian. Horretarako, bi hilabeteko epea egongo da, iragarki hau argitara ematen denetik aurrera.

Dena dela, aurreko paragrafoan adierazitako administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu aurretik, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio udalbatzari erabaki honen aurka, hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Zambrana, 2021eko urtarrilaren 26a

Alkate-lehendakaria

AITOR ABECIA JIMÉNEZ DE ABERASTURI